



SUKARRIETA
ESKOLA
SAIAKUNTZARAKO
ZENTROA



M
A
L
A
B
A
R
E
A
K



SESZ

Sukarrieta Eskola Saiakuntza Zentroko (SESZ) talde pedagogikoak txosten hau garatu du egonaldian zehar tailer hau garatuko duten irakasleentzat, baita ere tailer honen inguruan interesa duen edonorentzat.

Ikastetxe desberdinetako ikasleek zein irakasleek ingurumen hezkuntzako proiektuak garatzeaz gain hainbat tailer egiten dituzte astebeteko egonaldian. Tailer bakoitza bi orduko hiru saiotan dago antolaturik, lasaitasunez garatzeko moduan.

SESZeko lan pedagogikoan ikuspegi eraikitzailea eta ebaluazioa dira oinarriak eta garrantzia handia hartzen dute, besteak beste, talde-lanak, berdinen arteko ikasketak, aniztasunaren trataerak eta irakasleak ikasleekiko duen jarrera hurbilak.

Ilido berean jarraituz, tailerraren garapenarekin irakasleek esku-hartze pedagogikoa aberasteko aukera dute.

Alde batetik, tailerretan ikastetxe desberdinetako ikasleak elkartzen dira errealitate eta kultura anitz bilduz eta horrek aniztasunaren trataeran sakontzea ahalbideratzen du. Bestetik, talde lanean aritzen dira esku lan bat eginez, eta aukera paregabea zabaltzen da berdinen arteko ikasketa bultzatu eta ikasketa esanguratsua garatzeko.

Aurkibidea

1- SARRERA.....	3
2- HELBURUAK.....	4
3- PLANGINTZA.....	5
3.1- TAILERRA SAIOZ SAIO.....	6
• 1.SAIOA.....	6
• 2. SAIOA	10
• 3. SAIOA.....	13
4- ERANSKINAK.....	16
• I ERANSKINA: “Asmoen orria”.....	16
• II ERANSKINA: “Arduradunen orria”.....	17




1 ~ SARRERA

Ezin da zehaztasunez joko malabarren jatorria ezagutu; dakiguna da duela 4.000 urte agertzen zaizkigula jadanik pilota (edo bestelako tresnak) airean jaurti eta modu kontrolatu batean hartzearen ohitura.

Izenaren inguruan dakigun gauza bakarra da Malabar Indiako herrialde baten izena dela. Dena den Europa mailan holako ariketei "jonglier" edo "jugglirng" hitzarekin ezagutzen zaie. Badirudi erdi aroan erregeen gorteetan trebetasun hau ikuskizun nagusia bihurtu zela, juglaren eskutan. Ondoren zirkoa izango da ohitura hau mantendu eta garatuko zuenak.

Gaur egun ez da zaila edozein txokotan joko malabarrak praktikatzten dituzten pertsonak ikustea. Pilota tresna nagusia bada joko malabarrak egiteko, aparatu ezberdinak erabili ditzakegu: Uztaiak, mazak, zuziak, labanak, zapiak, deabruaren makilak, plater txinatarrak, diaboloa, eta abar luze bat.

Tailer honetan ikasleek malabarrak egiteko behar diren objektuak egingo dituzte eta ondoren, ariketak ikasteko eta praktikatzeko denbora izango dute.



Egipto Zaharreko harresi batean aurkitutako hormirudia (1994-1781 K.a.)

2~ HELBURUAK

TAILERREN HELBURU OROKORRAK

- Talde jardueretan aktiboki parte hartzea, norberari dagozkion ardurak erantzukizunez hartuz, norbere eta besteen ekarpenak balioetsiz eta besteekiko harreman orekatu eta eraikitzaileak sortuz, lankidetzan, errespetuan eta elkartasunean oinarritutako bizikidetzara eraikitzeko.
- Norbere elaborazio artistikoetan konfiantza garatzea, egitearekin gozatuz eta norbere garapen pertsonalari zein taldekoari egiten dizkion ekarpenak baloratuz, norbere autoestima sendotzeko eta ideia zein sentimenduen adierazpen gaitasuna hobetzeko.
- Ondasun kultural eta artistiko ezberdinak ezagutzea eta balioestea, espresiorako baliabideak modu estetiko eta sortzaile batean pertsonalizatuz, artea eta kultura ideia, sentimendu eta esperientzien adierazpen gisa ulertzeko eta baloratzeko eta ondarearen kontserbazioan eta berrikuntzan parte hartzeko.



“MALABAREAK” TAILERREN HELBURUAK

- Malabareak egiteko beharrezkoak diren objektuak ezagutu eta sortu.
- Egindako objektuak erabiliz, ariketa ezberdinak ikasi eta praktikatu.
- Norbere sormena ulertzea, ezagutzea eta baloratzea, egindako lanaren nortasun propioa azpimarratuz, edozein egile edo lan artistikoren aurrean bakoitzaren adierazpen askatasuna errespetatzeko eta sentsibilitate estetikoak garatzeko.

3~ PLANGINTZA

Malabarrak tailerra aurrera eramateko planteatzen den plangintza honako hau da:

Jogurt poteak (*) *astehenean, astearteko 2 jogurt poto gorde ditzatela aipatu*)

1. SAIOA

- 1.- Gelaren antolaketa
- 2.- Taldearen aurkezpena
- 3.- Asmoak
- 4.- Arduradunen izendapena
- 5.- Eredu bideoa ikusi
- 6.- Bolak egin
- 7.- Tailerraren bilketa
- 8.- Ariketak azaldu (bideoa)
- 9.- Ariketak praktikatu
- 10.- Balorazioa

ADI!! Hurrengo egunerako beharrezko izango diren potoak gogoratu!

2. SAIOA

- 1.- Eredu bideoa ikusi.
- 2.- Kariokak egin.
- 3.- Tailerraren bilketa.
- 4.- Ariketak azaldu (bideoa)
- 5.- Ariketak praktikatu.
- 5.- Balorazioa.

3. SAIOA

- 1.- Poltsak prestatu.
- 2.- Tailerraren bilketa.
- 3.- Ariketa berriak azaldu (bideoa)
- 4.- Ariketa berriak praktikatu.
- 5.- Hondartzara joan hare bila.
- 6.- Tailerraren balorazioa.

3.1 PLANGINTZA SAIOZ SAIO

1.SAIOA

Lagun artean gustura egon eta zerbait eginez une atseginak bizi nahi dira. Horregatik, saio honetako lehenengo momentuak garrantzitsuak izango dira, hasieratik giro atsegina sortzeko eta kideen arteko harremanak finkatzen hasteko. Tailerra gauzatzeko, taldekideen asmoak kontuan hartuz, taldekatze orekatuak gitea eta arduren banaketa gitea ezinbestekoak izango dira.

Saioan zehar, bolak egin eta malabare-teknika batzuk ezagutu eta praktikatuko ditugu.

Saioa atal desberdinetan bereziko da. Hona hemen saioaren antolaketa eta garapena:


	Momentuak:	Materiala:
25 min	1) Gelaren antolaketa 2) Taldearen aurkezpena 3) Asmoak 4) Arduradunen izendapena	<input type="checkbox"/> Asmoen orria <input type="checkbox"/> Arduradunen orria <input type="checkbox"/> Errotulkiak
40 min	5) Eredu bideoa ikusi	<input type="checkbox"/> Harea <input type="checkbox"/> Puxiak <input type="checkbox"/> Film papera <input type="checkbox"/> Koilarak <input type="checkbox"/> Artaziak <input type="checkbox"/> Txantiloiak
10 min	6) Bolak egin	
10 min	7) Tailerraren bilketa	
10 min	8) Ariketak azaldu - Esku bat, 2 pilota aurretik - Esku bat, 2 pilota ezker-eskuin - Bi esku, 2 pilota, eskuz momentu berean aldatu - Bi esku, 3 pilota 2-1, 2-1	<input type="checkbox"/> Bideoa <input type="checkbox"/> Pen drive-a
25 min	9) Ariketak praktikatu	
10 min	10) Balorazioa	
	ADI!	
	10) Hurrengo egunerako beharrezko izango diren potoak gogoratu!	

1.- GELAREN ANTOLAKETA

Tailerra hasi baino lehen gela antolatuta izatea garrantzitsua da ikasleak sartzen direnean lasaitasunez leku bat hartzen joateko eta gelaren egiturari kokatzen joateko.

Taldean 15 ikasle izango direla kontutan hartuz, bosteko hiru mahai prestatuko dira (ikus irudia).

Ikastetxe desberdinetako ikasleen artean harreman berriak bultzatzeko, ikasleak nahastu egingo dira, bosteko bakoitzean ikastetxe desberdinetako ikasleak elkartuz.



2.- TALDEAREN AURKEZPENA

Taldean elkartu diren ikasleak ikastetxe desberdinetakoak dira, oraindik ez dira elkar ezagutzen. Tailerreko momentuak konpartitu eta elkarlanean arituko direnez, irakasle zein ikasle bakoitzaren aurkezpena egingo da elkar ezagutzen hasteko (nor den, zein ikastetxetako den, zein proiektutan dagoen...).

Bestalde, ikasleek dakarten motibazio maila neurtzeko, tailerra beraiek aukeratutakoa den edo gustukoa duten ala ez galdetuko da. Honek taldean sor daitekeen giroa aurreikusten lagunduko du.

3.- ASMOAK

Ikasleek dituzten nahiak, interesak, helburuak... jakitea lagungarri izango da irakasleon esku-hartzea egokitzeko. Esandakoak jasotzeko, euskarri gisa, "Asmoen orria" (I Eranskina) erabiliko da.

Irakasle eta ikasleek tailer honetako asmoak elkarrekin adostuko dituzte. Horretarako honako galderak erabili ahal dira: *Zein asmo duzue tailer honetarako? Zeintzuk dira tailer honetarako dituzuen nahiak? Zer egitea espero duzue tailer honetan?...*

Asmoen tresna honekin ikasleen hainbat itzaropen eta nahi agertuko dira, baina tailerren helburuak bermatzeko interesgarria da asmo hauek ziurtatzea: *lagunak egitea, ondo pasatzea, tailerrari buruz ikastea...*

"Asmoen orria" tailerren prozesua erregulatzeko eta azken balorazioa egiteko tresna izango da.

4.- ARDURADUNEN IZENDAPENA

Tailerren garapena era antolatu, lasai eta ordenatuan egiteko, arduradunak izendatuko dira. Horretarako euskarri gisa, "arduradunen orria" (II Eranskina) erabiliko da.

Saio bakoitzerako **mahai taldekide bat** izendatuko da **arduradun**, erantzukizuna denek hartu dezaten. Arduradun horiek saio bakoitzean beharko lituzkeen osagai eta tresna guztiak armairutik mahaira ekarri, harrikoa egin eta mahaiak garbituko dituzte.

5.- BOLAK EGIN

MATERIALA (IKASLE BAKOITZEKO)


- 6 PUXIKA
- ARTAZIAK
- HAREA
- FILM PAPERA
(karratu formako 3 zati 20x20 zm.-koa)

TRESNAK (TALDE BAKOITZEKO)

- 2 Koilara
- Harea (ontzian)
- Bideoa
- Film papera
mozteko txantiloia

PROZEDURA

- 1.- Film paperak moztu eredu erabiliz. (Hobeto mozteko gomendatzen dugu binaka egitea).
- 2.- Film paper karratu bakoitzean harea ipini (3-4 koilarakada) bueltak emanez itxi.
- 3.- Puxika bati "lepoa" moztu eta egindako hareazko pilota, barruan sartu.



- 3.- Bigarren puxika berdinean moztu eta pilota, bere barruan sartu.



- 4.- Beste bi pilota egin, bakoitzak 3 edukitzeko. 3 bolak tamaina eta pisu berekoak izan behar direla, ikasleei esan.

6.- TAILERRAREN BILKETA

Saioaren hasieran izendatu diren arduradunen erantzukizuna izango da tailerra jasotzea, dena dagokion lekuan gordetzea, erabilitako tresnak garbitzea eta txukun uztea.

7.- ARIKETAK AZALDU

Ariketak azaltzeko bi aukera daude (irakaslearen trebetasunaren arabera):

- A- Bideoan ikusiz
- B- Irakasleak eginez

Ariketak:

- Esku bat, 2 pilota aurretik
- Esku bat, 2 pilota ezker-eskuin
- Bi esku, 2 pilota, eskuz momentu berean aldatu
- Bi esku, 3 pilota 2-1, 2-1

PROZEDURA

- 1.- Lehenengo ariketa bideoaren laguntzaz azaldu. Gero bolekin errepikatu, mugimenduak astiro azalduz, ondo uler dezaten.
- 2.- Lau ariketak azaldu.

8.- ARIKETAK PRAKTIKATU

Ikasleei denbora emango diegu ariketak praktikatzeko giro alai eta lasai batean bakoitzaren erritmoa eta trebetasunak errespetatuz.

9.- BALORAZIOA

Saio bakoitza bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua izango da. Saioaren balorazioa erabilgarria izango da beraien asmoak betetzen doazen, adostutakoa aurrera doan, zaila egin zaien, gustatu zaien... ikusteko eta horrela, hurrengo saioetan irakasleon interbentzio pedagogikoa egokitzeko.


10.- OHARRA

Hurrengo egunean kariokak egin ahal izateko, bakoitzak, astearte bazkariko 2 JOGURT POTE hartu, garbitu eta jantokiko hortz eskubila uzteko apalean sartu beharko dituztela gogoratuko zaie.

2.SAIOA

Saio honetan beste malabare motak egiteko beharrezkoak diren elementuak sortuko ditugu. Aurreko saioan bezala, giro atsegina sortzen saiatuko gara ikasleen harreman berriak sendotu ahal izateko.

Saioan zehar, kariokak egin eta malabare-teknika berri batzuk ezagutu eta praktikatuko ditugu. Saioa, atal desberdinetan bereiziko da. Hona hemen saioaren antolaketa eta garapena:

Momentuak:	Materiala:	
50 min	1) Kariokak egin 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Zinta itsaskorra ○ Arandelak (2 ikasle bakoitzeko) ○ Egunkariak (2 orri ikasle) ○ Kordela ○ Jogurt poteak (4 ikasleko) ○ Zetazko paperak ○ Harea ○ Etiketa itsaskorrak ○ Errotulkiak ○ Puxikak ○ Embudos ○ Puntzoiak
10 min	2) Tailerraren bilketa	<ul style="list-style-type: none"> ○ Bideoa ○ Pen drive-a
10 min	3) Ariketak azaldu (bideoa)	
40 min	4) Ariketak praktikatu	
10 min	5) Balorazioa	

1.- KARIOKAK EGIN

MATERIALA (TALDE BAKOITZEKO)

- Hasieran:
 - Koloreko zinta itsaskorra
 - Arandelak (2 ikasle bakoitzeko)
 - Puxikak (2 ikasle bakoitzeko)
 - Egunkariak (orri 2 ikasle bakoitzeko)
 - Kordela (2 ikasle bakoitzeko) (luzeera mahai bat =1m)
 - Jogurt pote 4 (ikasle bakoitzeko) astearlean hartutakoak
- Bukaeran:
 - Zeda-papera (kolore ezberdinetakoak)
 - Etiketa itsaskorak (53 x 100 mm) (4 ikasleko)
 - Harea

TRESNAK (TALDE BAKOITZEKO)

- 2 Koilara
- Errotulki lodiak
- 2 Artazi
- 2 Puntzoi taldeko
- Bideoa
- 2 Neurketa-zinta

PROZEDURA

1. Jogurt poteen bila jantokira joango gara ikasleekin, guztiok batera eta lasai.
2. Jogurt potearen goiko aldeko "aleroiak" moztu.
3. Ikasle bakoitzak zuloak egingo dizkie jogurt poteei (beheko aldeko erdian) puntzoia erabiliz (kanpotik barrurantz egitea komenigarria da). Behin zuloa eginda, arkatza eta arandelaren laguntzaz, zulo hori zabaldu kordela sartu ahal izateko (**Kontuz zuloa zabaltzerakoan potea ez apurtzeko!**)
4. Kordela zulotik pasatu, luzatu eta jogurt pote barruan geratuko den muturrean, arandela ipini eta honen ondoan korapilo bat egin, arandela eta korapiloa pote barruan geratu.
5. Egunkari orri erdi bat sartu eta ondo zapaldu korapilo eta arandelaren kontra.
6. Haize kolpe batez, puxika puztu eta gero berri hustu.
7. Puxika betetzeko, binaka egingo dugu. Batek eskuekin zabalduko du puxika bere "lepotik" eta bestea harea sartuko dio. (3 koilarakada).
8. Puxika itxi, korapilatu eta lehen sartutako paperaren gainean ipini.
9. Gero, puxikaren gainean beste papera sartu dena ondo zapalduta geratu arte.
10. Zinta itsaskorraren 22 zm.-ko 4 zati moztu (jogurt pote bakoitzeko) eta jogurt potea goitik behera inguratu, beheko zuloa libre utziz.
11. Pegatinak margotu (2 pegatina pote bakoitzeko) eta jogurt potearen inguruan itsatsi taparen ertzetik behera.
12. Zinta itsaskorraren 18 zm.-ko zati bat moztu eta kutxan dauden zeda-paperezko zintak puntatik itsatsi, koloreak tartekatzen eta zintza zatien artean, tarteak utziz.
13. Zinta hori jogurt potearen inguruan itsatsi, kordela irteten **EZ** den aldean.
14. Bi karioken soken luzera berdina dela ziurtatu, eta beharrezkoa izatekotan, bat moztu horrela izan dadin.
15. Kordelen muturretan korapilo bana egin, hatzamarra sartu ahal izateko.

2.- TAILERRAREN BILKETA

Saioaren hasieran izendatu diren arduradunen erantzukizuna izango da tailerra jasotzea, dena dagokion lekuan gordetzea, erabilitako tresnak garbitzea eta txukun uztea.

3. ARIKETAK AZALDU

Ariketak azaltzeko bi aukera daude:

- A- Bideoan ikusiz
- B- Irakasleak eginez

Ariketak:

- *Molino sencillo: (Bideoan, 00':04" – 00':16")*
- *Lax: (00':17" – 00':47")*
- *Cruce básico: Pasando un brazo por encima del otro: (00':48" – 01':18")*

4.- PRAKTIKATU

Ikasleei denbora emango diegu ariketak praktikatzeko giro alai eta lasai batean bakoitzaren erritmoa eta trebetasunak errespetatuz.

5.- BALORAZIOA

Saio bakoitza bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua izango da. Saioaren balorazioa erabilgarria izango da beraien asmoak betetzen doazen, adostutakoa aurrera doan, zaila egin zaien, gustatu zaien... ikusteko eta horrela, hurrengo saioetan irakasleon interbentzio pedagogikoa egokitzeko.

3.SAIOA

Orain arte egindako lanari bukaera emateko, malabarrak eta kariokak etxera eramateko poltsak prestatuko dira eta ikasitako ariketak, zein beste berri batzuk praktikatzeko denbora eskainiko zaie. Tailerrarekin bukatzeko, egindako lana eta bere prozesua baloratuko dira.

	Momentuak:	Materiala:
20 min	1) Poltsak prestatu	<ul style="list-style-type: none"> ○ Paperezko poltsak ○ Poltsetarako etiketak ○ Errotulkiak ○ Barrazko itsasgarria
10 min	2) Tailerraren bilketa	
15 min	3) Ariketak berriak azaldu (bideoa) <u>Bolak:</u> -Esku bat eta 2 pilota, gero bi esku eta 3 pilota -Bi kide elkarrekin, bakoitzak esku bana eta 3 pilota. -Bi esku, 3 pilota. <u>Kariokak:</u> - <i>Cambio de sentido</i> : (01':19"-01':54") - <i>El Ocho</i> : (01':55"-02':27")	<ul style="list-style-type: none"> ○ Bideoa
40 min	4) Ariketak praktikatu	
10 min	5) Hondartzara joan hare bila	<ul style="list-style-type: none"> ○ 3 Tuper (baldeak) ○ Hondartzako giltzak ○ Iragazkiak
10 min	6) Balorazioa	

Hurrengo orrialdeetan plangintzaren azalpen zehatzagoak garatzen dira:

1.- POLTSEN APAINKETA

MATERIALA (TALDE BAKOITZEKO)

- Poltsak
- Poltsetarako etiketak

TRESNAK (TALDE BAKOITZEKO)

- Artaziak
- Errotulkiak
- Barrazko pegamentoa

Poltsa:

Paperezko poltsa eta etiketa bana eman.

Ikasle bakoitzak etiketa bat apainduko du, egilearen izena zehaztuz eta ondoren, poltsan itsatsiko du.

Tailerrean zehar egindako tresnak, saio hau amaituko denean, poltsetan gorde etxera eramateko.

2.- TAILERRAREN BILKETA

Lehenengo saioaren hasieran 3.saio honetarako izendatutako arduradunen erantzukizuna izango da tailerra jasotzea, dena dagokion lekuan gordetzea, erabilitako tresnak garbitzea eta txukun uztea.

3. ARIKETA BERRIAK AZALDU

Bideoaren laguntzaz ariketa berriak ikusi eta praktikatuko dituzte. Bolekin 3 ariketa eta kariokekin egiteko beste 2 ariketa proposatzen ditugun arren, taldearen ezaugarriak kontuan hartuta, irakasleak erabakiko du zeintzuk irakatsi.

4.- ARIKETAK PRAKTIKATU

Ikasleei denbora emango diegu ariketak praktikatzeke giro alai eta lasai batean bakoitzaren erritmoa eta trebetasunak errespetatuz.

5.- HONDARTZARA JOAN HARE BILA

TRESNAK (TALDE BAKOITZEKO)

- 3 balde (bat talde bakoitzeko)
- Hondartzarako giltzak (irakasle gelan daude)

PROZEDURA

1. Astero beharrezkoa denez harea edukitzea, hurrengo astean etorriko diren ikasleek harea beharko dutela, azaldu. Hori dela eta, hiru balde hartu eta guztiok batera hondartzara joango gara eta hare lehorra ekarriko dugu.
2. Harea gelan utzi.

Oharrak:

- * Harea hartuko dugunuean, baldera bota baino lehen iragazkitik pasako dugu harriak eta oskolak ekiditeko.

6.- TAILERRAREN BALORAZIOA

3 saioak bukatzean tailerra baloratuko da. Momentu honi dagokion denbora eskaintzea garrantzitsua izango da. Tailerraren balorazioa erabilgarria izango da lehenengo saioan adostutako asmoak bete diren, adostutakoa aurrera eraman den, zaila egin zaien, gustatu zaien, nola sentitu diren... jakiteko, tailerrean beharrezkoak diren aldaketak egiteko eta irakasleon interbentzio pedagogikoa egokitzeko.

ASMOAK



.....



.....



.....



.....

ARDURADUNAK

1.SAIOA

2.SAIOA

3.SAIOA



